

## YĔHUDA HA-LEVI ETA HAREN OBRA

*Tutera, 2002-X-18.*

*Xabier Kintana*

Jaun-andreok:

Ohore eta pozgarria zait gaur, zuen aurrean, Nafarroako, eta bereziki, Tuterako seme ospetsu honen lanak hemen, beraren jaioterrian, aurkeztea. Eta Yĕhudah ha-Levi-z ari naiz. Izan ere, pertsona guztiok geure bizialdi laburrean ia lainopean pasatzen gara mundu honetatik, baina gure eginak, gure lan eta ahaleginen fruituak hor gelditzen dira, gure hatsaren luzapena daramaten seme-alabengan, eta gure izpirituaren kume diren bestelako ekintzetan mamiturik. Eta horietan, artista-lanek, bereziki, balio iraunkorra izaten dute ondoko belaunaldiotarako ere, horiek kontserbatzen eta estimatzen jakin dugun neurrian behintzat. Eta horixe da, hain zuzen ere, Yĕhudah ha-Levi-ren kasua, bera ere artista baitzen, hitzaren langile, idazle eta poeta fina.

Gazterik utzi zuen bere jaioterria, baina Al-Ándalusen bizi izan zen al-dian Tuteran ikasiriko hebreera landu eta Erdi Aroko poeta judu hoberenetakoko bat izatera heldu zen, era guztietako bertsoak eginez.

Kultura ahanzturaren aurkako borroka etengabea omen da. Gure egunotan harrigarri irudi dakigukeen arren, Tuterako kaleetan, euskara eta erroman-tzearekin batera, luzaro entzun ziren arabiera eta hebreera ere, eta on da garai hartako gizarteaz oroitzea, hura ere gure ondare historikoa baita.

Iraganaren eta orainaldiaren arteko lotura hori sinbolizatzeko, beraz, jatorrizko hizkuntzaz gainera, Nafarroako mintzaira ofizial bietan, euskaraz eta erdaraz, argitaratu ditu Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza eta lankidetasunaz, Yĕhudah ha-Levi-ren hebreerazko poema ederrak, XI-XII. mendeko kultur ondare hori berreskuratu eta ezagutarazteko asmoz. *Haizearen hegaletan* izena darama liburuak, eta etorri, halaxe datorkigu nolabait Yĕhudah ha-Levi-ren bertsoen oihartzuna ere, mende askotan isilik egon ondoren, denboraren estalki iluna zeharkatuz, argi-errainu distiratsua bezala.

Obrari eginikako hitzaurre ederretan Josemari Satrustegi nafar euskaltzain eta etnologo ezagunak eta Haim Beinart Jerusalemeko Hebrear Unibertsitate-

ko historialari ospetsuak zehazki azpimarratzen dizkigute gure poetaren sentiberatasun eta iturri biblikoak, kezkak eta testuingurua, obra hau bere garaian hobeki kokatu eta ulertu ahal izateko.

Erdarazko itzulpena, bikaina benetan, Ángel Saénz-Badillos jaunari eta Judit Targarona Borrás andreari zor diegu, bai eta poemei buruzko ohar eta argitasun ugariak ere. Hebrear testua, arestian aipaturiko irakasleek prestatua, Alfaguara editorialaren kortesia izan da. Bidezkoa denez, beraz, zilegi izan bekit guztioi eskerrak ematea.

Bukatzeko, eneak euskarazko itzulpena eta aurkezpena dituzue, biok Tuterako seme honek merezi duen maitasun guztiaz burutuak, Ebro bazterreko **Argia** ikastolaren aldeko ekintza gisa, beronek euskararen alde egiten duen lan txalogarria eskertzeko, aurtengo **Nafarroa oinez** honetan. Zuen gogokoa izatea nahi nuke, eta ene lana begi zorrotzegiekin ez epaitzea.

## SOBRE YĔHUDA HA-LEVI Y SU OBRA

*Tudela, 18-X-2002*

*Xabier Kintana*

Señoras y señores:

Es para mi un placer, al tiempo que un inmenso honor, poder presentar ante Vds., aquí, en Tudela, la obra de uno de los hijos más ilustres e universales de Navarra, nacido precisamente en esta ciudad ribereña: Yĕhudah ha-Levi.

La mayoría de los seres humanos transitamos por este mundo de una manera casi anónima, dejando para la posteridad, en el mejor de los casos, nuestra descendencia vital, encarnada en nuestros hijos. Sin embargo algunos, especialmente los artistas, tienen la suerte de aportar algo más de sí mismos, su obra, criatura de su espíritu, que, en la medida que es recordada y estimada, constituye un valor duradero y motivo de orgullo para las generaciones siguientes. Y es éste precisamente el caso de Yĕhudah ha-Levi, ya que también él fue artista, orfebre de la palabra, un verdadero escritor y poeta.

Aunque dejó su ciudad natal en su juventud, durante el tiempo que vivió en Al-Ándalus tuvo ocasión de demostrar su buen conocimiento y maestría en el empleo de la lengua hebrea que aprendió en Tudela durante su niñez. Llegó a ser uno de los mejores poetas judíos de la Edad Media y también de todos los tiempos, como lo comprobará cualquiera que lea sus poemas.

Se ha dicho que la cultura es una lucha sin descanso contra el olvido. Aunque hoy pueda parecernos extraño, durante siglos el árabe y el hebreo fueron también idiomas comunes en Tudela, al igual que el vasco y el romance.

Todos somos deudores de los que nos han precedido. Yo reconozco que mi interés sobre los judíos en nuestro País lo despertó el ilustre tudelano José Joaquín Montoro Sagasti, al que tuve la suerte de conocer en Pamplona durante mi época de estudiante, al final de los años sesenta, persona que supo integrar en su gran patriotismo navarro el amor por la lengua vasca y el interés por las raíces judías de su ciudad natal.

Todos esos elementos han sido y son factores complementarios de nuestra historia y cultura y así lo hemos entendido al preparar esta antología poética. Así pues, deseando simbolizar ese nexo de unión entre pasado y presente, La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia ha publicado con la ayuda y colaboración de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, una muestra de los hermosos versos hebreos de Yēhudah ha-Levi, traducidos a las dos lenguas oficiales de Navarra, al castellano y euskara, con ánimo de rescatar del olvido y dar a conocer ese gran valor cultural de los siglos XI y XII. La antología lleva por título *Sobre las alas del viento*, frase tomada de uno de sus poemas, pues nos parece que, de alguna manera, es así como llegan hasta nosotros, tras muchos siglos de silencio, los ecos de los versos de este gran poeta tudelano: como un rayo de luz luminoso que rasga el oscuro velo del tiempo.

Han prologado esta obra el prestigioso etnólogo navarro y miembro de Euskaltzaindia, Jose Maria Satrustegi, así como el eminente historiador israelí Haim Beinart, profesor de la Universidad Hebrea de Jerusalén, que ponen de manifiesto la gran sensibilidad del poeta, sus fuentes bíblicas, sus inquietudes y el contexto histórico-cultural de su vida, para ayudarnos a ubicarlo en su tiempo y comprender mejor su obra.

La excelente versión castellana se la debemos al profesor Ángel Sáenz-Badillos y a su esposa la doctora Judit Targarona Borrás, de cuyas manos proceden igualmente las numerosas notas de pie de página de los poemas. También es suyo el texto hebreo, publicado gracias a la cortesía de la editorial Alfaguara. Vaya pues hacia ellos mi agradecimiento más sincero.

Para terminar, quiero decir que yo me he encargado de la traducción vasca de los poemas y de la introducción del libro, ambas realizadas con todo el cariño que se merece este destacado hijo de Tudela, como homenaje y ayuda a la ikastola **Argia** de esta ciudad, organizadora este año del **Nafarroa oinez**, que dedica tantos esfuerzos en favor de la lengua vasca. Desearía que mi trabajo sea del agrado del lector y que no lo juzgue con excesiva severidad.

תודה רבה גברתי ורבותי וחברי. שלום לכלכם

Todah rabah, g**h**ir**o**tai werabotai weh a**h**erai. šalom lekul**k**em.

Eskerrik asko jaun-andre eta adiskideok. Agur guztioi.

Muchísimas gracias señoras, señores y amigos todos. Un saludo cordial.